


EUSKARAZKO LITERATURA



Asier Serrano

Linbotarrak

Pamiela

18.000 euroko saria eta 4.000 euro, lan saritua beste hizkuntza batean argitaratzen bada.

Epaimahaia:

Luis Garde, epaimahaiburua

Castillo Suarez, epaimahaikidea

Jon Kortazar, epaimahaikidea

Yurre Ugarte, epaimahaikidea

Pello Otxoteko, epaimahaikidea



2017

XXI edizioa

EUSKADI LITERATURASARIAK
PREMIOS LITERATURA EUSKADI


Epaimahaiak ikusitako merituak

Linboaren ideia erlijiotik kanpo geratu omen den garaiotan, Asier Serranok berreskuratu du baztertutako eremu hori gure gizartearen fresko poetiko bat irudikatzeko. Poema hauek erretratatzen edota epaitzen dituzten linbotarrak sexua daukaten aingeruak eta kontzientziak astindutako deabruak dira, hau da, gizaki arruntak dira orriotan dabilzanak. Hemengoak eta oraingoak dira linbotar horiek: irakurlea bera sentitzen da bertako biztanle, gutako norberaren porrotez eta kontsolamenduez hitz egiten diguten poemak baitira liburu askotariko baina konpaktu honetan biltzen direnak.

Serrano sinbolo eta irudien berariazko sare bat ehunduz doa olerkietan zehar, bildumari batasun berezia eta izaera ahaltsua ematen diona. Linbotarren irudiaren hariak osotasunaren aberastasuna indartzen duen arren, horrek ez du galarazten olerki bakoitzaren argudio eta garapen autonomoak, kultura garaikideko esparru anitzetik edaten baitute poemek: musikatik, artetik, bizipen intimoetatik, literaturatik. Oreka miragarria dago iruditeria surrealistaren eta poemen ulergarritasunaren artean: poeta, begirada aratz baten jabe izaki, oso trebea azaltzen da hizkuntzaren aberastasunak ausarki esploratzean, baina inoiz ere haria galdu gabe eta irakurlearekin ezartzen duen komunikazio sakona kaltetu gabe.

Linbo hau, berriz, leku izateaz gain, gizakion gogo aldarte ere bada. Bizitzaren bidearen erdian orientazioa galdua dabilen ahots desengainatu eta eszeptiko honek aterpe emankor aurkitu du ironia helduan, irudimen artistikoan, irakurlearekin bikain partekatzen dakien sentsibiltate zauritu baten antzaldatze poetikoetan.

Asier Serrano



1975, Eibar

Euskal idazle eta musikaria. Literaturan ia genero guztiak ukitu ditu eta musikagintzan Lorelei taldeko gidaria izan eta gero bakarkako lanari heldu zion hiru disko utziz: ***Ez esan inori***, ***Gerrari bai*** eta ***Hoteleko kantuak***.

Narrazioa: ***Mari Basajaunaren eremuan*** (2001, Txalaparta) eta ***Hoteleko kontuak*** (2001, Apokaliftin).

Nobela: ***Eskuetan mapak*** (2007, Txalaparta), ***Erlojugilea*** (2009, Txalaparta) eta ***Abisalia*** (2014, Txalaparta).

Poesia: **Bada hiri gorri bat** (1997, Elkar), **Picassoren zaldia** (2007, Elkar), **Hiri gorritik** (2010, Elkar), **Desterratuen piztiarioa** (2011, Alberdania) eta **Ate osteko itzalak** (2016, Algaida).

Linbotarrak

Linboaren metaforak besterik iradoki balezake ere, ez da hemen aingeru konturik batere. Aitzitik, arras kontu mundutarrak dira poemotan jorratzen direnak, eguneroko jokabideetatik hasi eta kritika sozial eta politikorainoko esparru guztian. Askotarikoak dira irudi poetikoak, erreferentzia eta estilo arras desberdinetakoak, eta gehienetan ageriko loturarik gabe, collage moduan uztartuak. Bestalde, ez dira gutxi poemotan agertzen diren ukitu surrealistak, eta poemategiak dezente du pop-etik edo are poesia filosofikotik ere. Orogen buru, hizkera eta irudi zuzenak erraz biltzen du irakurlea poetak egiten duen barne bidaira.



2017

XXI edizioa

EUSKADILITERATURASARIAK
PREMIOS LITERATURA EUSKADI